# Bestelako Xedapenak

**KULTURA SAILA**

**179**

AGINDUA, 2010eko abenduaren 16koa, Kulturako sailburuarena, Errezilen (Gipuzkoa) den Artzalluzonuzkoa baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2010eko urriaren 7ko Ebazpenaren bidez Errezilen den Artzalluzonuzkoa baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2010eko azaroaren 10eko EHAAn (216. zk.) argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientea jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3 artikuluetan eta artikulu horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Errezilen (Gipuzkoa) den Artzalluzonuzkoa baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

***Bigarrena.–*** Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako aipatutako Ondasunaren deskribapen formala egitea, agindu honen

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**179**

ORDEN de 16 de diciembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Artzalluzonuzkoa, sito en Errezil (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del Caserío Artzalluzonuzkoa, sito en Errezil (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 7 de octubre de 2010, publicada en BOPV n.º 216, de 10 de noviembre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

***Primero.–*** Inscribir el Caserío Artzalluzonuzkoa, sito en Errezil (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

***Segundo.–*** Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en

II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

***Hirugarrena.***– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari agindu honen berri ematea.

***Laugarrena.***– Errezilgo Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

***Bosgarrena.***– Espedienteko interesdunei, Errezilgo Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari agindu hau jakinaraztea.

***Seigarrena.***– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agindu hau argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Inskribatzeko den agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango du ondorioak.

***Bigarrena.***– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 16a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

Mugaketa.

a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Mendebaldean, lerro bat, baserriaren iparmendebaldeko muturretik 41 metrora, eta hegomendebaldeko muturretik 39 metrora, eta partzelen mugekin bat egiten duena.

Hegoaldean, baserriaren fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 35 metrora trazatua.

el anexo II de la presente Orden, a los efectos previstos en la Ley del Patrimonio Cultural Vasco.

***Tercero.***– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, según lo establecido en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

***Cuarto.***– Instar al Ayuntamiento de Errezil para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

***Quinto.***– Notificar la presente Orden a los interesados, al Ayuntamiento de Errezil, a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

***Sexto.***– Publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda.***– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2010.

La Consejera de Cultura,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

ANEXO I

Delimitación.

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Oeste una línea distante 41 metros de distancia del extremo Noroeste del caserío y 39 metros del extremo Suroeste, y que coincide con el límite de las parcelas.

Al Sur una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 35 metros de distancia.

Ekialdean, baserriaren ekialdeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 45 metrora.

Azkenik, iparraldean, inguruko baserrira iristeko bidearen ertz urrutiena.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa hau proposatu da, hain zuzen, Artzalluzonuzkoa baserriaren ingurumariko ingurumen- eta ikuste-balioak babestu behar direlako; baserria Aizarnazabal udalerriko Errezil auzoan dago, muino baten gainean. Ingurunearen mugaketa beharrezkoa da katalogatutako ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko, eta berarekin batera dakar baserriaren inguruko lurrak eta eraikinerako sarbidea babestea, baserriaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

II. ERANSKINA

Deskribapena.

Familia bakarreko baserria da, planta angeluzuzenekoa (21 m zabal eta 16 m sakon). Bi solairu eta ganbara ditu, baita soto txiki bat ere, lurzoruaren desnibela aprobetxatzen duena. Bi isurkiko estalkia, artisauzko teilaz estalia, ekialdeko fatxada nagusiaren planoari elkarzut dagoen goihabearekin. Murru perimetralak landu gabeko harriz eginak ditu, morteroz zarpiatuta eta kareztatzearen hondarrak dituzte.

Fatxada nagusiak sartzeko bi bao ditu, bat erdian, orri zatituarekin, etxebizitzara sartzeko, eta beste bat eskuinean, ukuilura sartzeko. Fatxadaren ezker aldean, baxuago, beste bao bat dago, erdisotora sartzeko. Eskuinaldera, berriz, lurrezko arrapala bat dago, landu gabeko harrizko zenbait murruk eutsitakoa. Arrapalatik, orri biko atetzar bat igarota, zuzenean sartzen da lehenengo solairura. Fatxadan zortzi leiho, sarbideko baoak eta egurrezko karga-habeak ditu. Goiko aldea irekita dago.

Hegoaldeko fatxadan, murruari atxikitako terraza bat dago, beheko solairuan. Albo bakoitzean lurrez eta landu gabeko harri sekoz eginiko arrapala bana dago, eta horietatik sartzen da terrazara. Etxebizitzarako sarbidea egurrezko karga-bao batetik egiten da; bi orriko ate batek ixten du baoa. Fatxadan tamaina desberdinetako zazpi leiho ikus daitezke, dimentsio desberdinetakoak, egurrezko leihoburuekin. Horrez gain, badago egurrezko armazoia, landu gabeko harriz betea, lehenengo solairutik estalkiperaino heltzen dena.

Atzeko ekialdeko fatxadan, beheko solairuan, leiho-bao bat dauka, egurrezko leihoburua duena, eta beste bi, harlanduz hesituta; horietako bat itsututa dago. Bi eranskinek estaltzen dute fatxadaren zati bat.

Al Este una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 45 metros de distancia.

Y, finalmente, al Norte, el borde más lejano del camino de acceso a los caseríos de la zona.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Artzalluzonuzkoa, emplazado en lo alto de una loma del barrio Artzalluz de Errezil. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello, esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha, sino también el entorno que lo rodea.

ANEXO II

Descripción.

Caserío unifamiliar de planta rectangular de 21 m de ancho por 16 m de fondo, de dos alturas, desván y un pequeño semisótano aprovechando el desnivel del terreno. Cubierta a dos aguas revestida de teja canal artesana, con caballete perpendicular al plano de la fachada principal de orientación E. Presenta muros perimetrales ejecutados en mampostería, enfoscados de mortero y con restos de encalado.

La fachada principal presenta dos vanos de acceso, uno en el centro con una hoja partida para la vivienda y otro a la derecha para acceder al establo. A la izquierda de la fachada, en cota más baja, se sitúa un vano de entrada al semisótano. A la derecha, en cambio, una rampa de tierra contenida por muros de mampostería da acceso, a través de un portón de dos hojas, directamente a la primera planta. Ocho huecos de ventana se abren en esta fachada, al igual que los vanos de acceso, con cargaderos de madera. Presenta el hastial abierto.

En la fachada S hay una terraza adosada al muro a la altura de la planta baja, a la que se accede por dos rampas de tierra y mampostería seca, una a cada lado. El acceso a la vivienda se realiza por un vano con cargadero de madera cerrado por una puerta de madera de dos hojas. Son visibles en la fachada siete huecos de ventana de distintas dimensiones con cargaderos de madera, y un entramado de madera relleno de mampostería a partir de la primera planta hasta el bajocubierta.

La fachada W, trasera, presenta un vano de ventana con cargadero de madera en la planta baja y otros dos, con recercos de sillar, encima; uno de ellos cegado. Dos anejos cubren parcialmente la fachada. En el

Ezkerreko eranskinean ogi-labe bat dago. Landu gabeko harriz egina da, eta teilazko estalkiak babestua. Ezkerreko eranskinak, fatxadaren erdian kokatuta, bi solairu eta sarbideko bi bao ditu, egurrezko ateburuak eta horma-atal bakarreko estalkia dutenak. Eranskin horrek, lehenengo solairuan, sagardo-dolare bat dauka, burdinazko torlojua duena. Lehenengo solairura lurrez eta landu gabeko harriz egindako arrapala batetik ere sartzen da, bi orriko atetzar batetik. Goiko aldea (hastiala) irekita dauka. Iparraldeko fatxadak ez du hutsarterik.

Baserriko barruko egitura pieza bakarreko zutabeetan bermatzen da, estalkiraino heltzen diren harrizko eserlekuetan. Zutabe bi garai gotikoko dolare bateko berniak dira. Orobat, zenbait sobigain eta azpileko oholtzen zati bat dauka. Zutabeek –aho-ziriz eta enara-buztanez mihiztatuta eta habe eta besoekin– solairuen arteko forjatua jasaten dute eta estalkiari eusten diote. Petralek, gapirioek eta enlatatuek osatzen dute estalkia. Beheko solairuko zolataren zati handi bat harlauza handiz eginda dago. Barruan su zentraleko sutondo bat dauka, tximiniarik gabe; haren ondoan gaur egungo sukaldea egin zen, baita zenbait itxitura beheko solairuan, oholtza mihiztatuz, eta hurrondoz gurutzatua, lastategi-ganbaran.

XVI. mendearen hasieran eraiki zen Artzalluzonuzkoa. Jatorrizko egitura perimetrala egurrezkoa zen. XVIII. mendean eraberritu zenean, gaur egungo landu gabeko harrizko murruak ezarri zizkioten. Jatorrizko barruko armadura, berriz, ez zuten aldatu.

adosado de la izquierda, construido en mampostería y resguardado por una cubierta en teja, se localiza un horno de pan. El anejo izquierdo, emplazado en la parte central de la fachada, posee dos plantas y dos vanos de acceso con cargaderos de madera y cubierta de un solo paño. Éste alberga en la primera planta un lagar de sidra con husillo de hierro. A la primera planta se accede también por una rampa de tierra y mampostería, a través de un portón de dos hojas. Presenta el hastial abierto. La fachada N, por último, no muestra huecos.

La estructura interior del caserío se levanta sobre postes enterizos apoyados en poyos de piedra que alcanzan la cubierta. Dos de los postes corresponden al par de bernias centrales de un lagar de época gótica. Asimismo, conserva algunos soviganos y parte de los tablones de la masera. Los postes, ensamblados con cajas de espiga y cola de golondrina con vigas y tornapuntas, soportan el forjado entre plantas y sustentan la cubierta, formada por correas, cabrios y el enlatado. La solera de la planta baja está formada, en gran parte, por grandes losas. Mantiene en su interior un hogar de fuego central sin chimenea junto al cual se construyó la actual cocina, así como varios cierres con tablazón machihembrado en la planta inferior y de entrelazado de avellano en el pajar-desván.

Artzalluzonuzkoa es un edificio construido a principios del siglo XVI, cuya estructura perimetral original era de madera. En el siglo XVIII fue reformado y dotado de los actuales muros en mampostería, si bien su armadura interior original no fue modificada.